



**Liburutegi Nagusia Alderdi Eder**  
**Biblioteca Central Alderdi Eder**

2012ko Urria

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

## Ramon Saizarbitoria

(Donostia 1944 - )

Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologo eta idazlea da, 60ko urteetatik aurrera euskal hedabide gehienetan hartu du parte. 1967an LUR argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan Oh Euzkadi literatur aldizkaria.

Batik bat eleberriak landu ditu, baina saiakerak eta poesiak ere idatzi ditu. Euskal literaturan egile garrantzitsuenetarikoa dugu. Ereinen kaleratu ditu lan gehienak. 1985ean, Alfonso Ungriak zinemara eraman zuen **Ehun metro** liburua.

Berriki **Martutene** eleberria argitaratu du.

### Martutene



Dadoa zenbait aldiz jaurti ondoren, bosta atera da: Julia, Martin, Pilar eta Abaitua dira lau kantoietako puntuak; erdikoa, Lynn.

Julia itzultzailea da, Martin, idazlea; Pilar eta Abaitua medikuak. Berriro osatzeko (edo desegiteko) prozesuan dauden bi bikote. Horretan, neska amerikar bat agertzen da haien bizitzan; soziologoa da, Max Frischen eleberri bateko protagonistaren izena du. Lynnek ez du nahi, baina aspalditik lokartuak zeuden harreman haien zimenduak astinduko dituzten erreakzioak abiaraziko ditu haiengan: alaitasuna, desira eta bizi berri bati ekiteko poza eta ilusioa. Lynnen presentziak ematen dio Juliari falta zitzaion ausardia; idazleari, azken maite-jolasekin amets egiteko aukera; Abaituari kulpaz astun batetik askatzeko modua, eta askapen zoriontsu horri esker zentzu duinagoa eta beteagoa emango dio bizitzari. Pilarri, bere aurkariari, bere zoria erabakitzeke eginkizuna utziko dio.

Lynnen "Fly away" (zoaz hegan) melodiko eta askatzaileak, beste hainbat doinu gozo, zakar, triste edota mingarriekin batera (abertzaleen istorioak, gerrakoak, indarkeria eta heriotza kontuak) eleberri guztia igarotzen du, hasieratik "coda"raino. Amaieraren aurretik, ordea, geralditxo bat egiten da, azkeneko aldiz, guduaren osteko paisaia aztertzeko. Protagonista batzuk hegan abiatuko dira, beste batzuk lurrean geratuko dira, erremediorik gabe. Lynn, noizbait aingeru askatzaile, gaur heroi lurreratu, oroimenaren aingeruaren besoetan datza orain, eleberri bikain, zuhur eta zirraragarri honetako protagonista (eta irakurle) ororen gainean hegaldatuz.

## Ramon Saizarbitoriaren idazlanak - Obra de Ramon Saizarbitoria

Martutene (2012) **N SAI**

Kandinskyren tradizioa (2003) **I-82-31 SAI**

Guárdame bajo tierra (2002) **N SAI**

Rossetti-ren obsesioa (2001) **N SAI**

Bi bihotz, hilobi bat (2001) **N SAI**

Gudari zaharraren gerra galdua (2000) **N SAI**

Gorde nazazu lurpean (2000) **N SAI**

Amor y guerra (1999) **N SAI**

Aberriaren alde (eta kontra) (1999) **008 SAI**

Los pasos incontables (1998) **N SAI**

Bihotz bi. Gerrako kronikak (1996) **N SAI**

Hamaika pauso (1995) **N SAI**

Perinatalidad y prevención : (análisis de la situación en Guipuzcoa) (1981)

**618 SAI**

Nacer en Guipuzcoa (comentarios sobre perinatalidad y prevención) (1981)

**1 5-4 19**

Ene Jesus edo Jesus, Jesus, Jesus Maria eta Jose! (1976) **V 12132**

100 metro (1976) **N SAI**

Mendebaleko ekonomiaren historia; Merkantilismotik 1914-era arte (1970)

**II 65-3 47**

Egunero hasten delako (1969) **N SAI**

- *Signatura dauzkatenak liburutegietan aurkitu ditzazkezu / Encontrarás en la biblioteca las obras marcadas con signatura*

## Ramon Saizarbitoriarekin elkarrizketa - Entrevista con Ramon Saizarbitoriaren

Juan Luis Zabala

Berria 2012-07-10

«'Martutene'-ren ondoren libreago sentituko naiz»

Aurkeztu zenean, ikusmina piztu zuen Ramon Saizarbitoriaren 'Martutene'-k. Geroztik, harrera kritiko ez oparoa baina bai beroa izan du. Egindakoarekin pozik da, baina aurrerantzean beste kontu batzuei buruz idatzi nahiko luke.

Urte asko eman ditu Ramon Saizarbitoriak (Donostia, 1944), lan tinko eta diziplinatuan, **Martutene** nobela (Erein) idazten. Hura amaiturik, libreago sentitzen hasia da; libreago, bi

**Donostia Kultura**

Udal Liburutegi Nagusia • Biblioteca Municipal Central

Alderdi Eder, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián

tel (0034) 943 481 486/488 • faxa 943 481 490 • [liburutegia\\_alderdieder@donostia.org](mailto:liburutegia_alderdieder@donostia.org)

alderditatik: batetik, orain nahi duenean paseatzeko aukera duelako, nobelaren idazketa lanaren loturarik gabe; bestetik, euskal gatazka deitu ohi denaren inguruan nobelen bitartez esan behar zuena esana duen irudipena duelako. Haren alaba Madalen ari da **Martutene** gaztelaniara itzultzen, eta badiu dagoeneko itzulpen hori kaleratzeko eskaintza batzuk, baina kontu horietaz ez da askorik kezkatzen. Idazle gisa, beste fase batean sartzeko gogoz dago; eta baita Euskal Herria, herri gisa, beste fase batean sartzen ikusteko gogoz ere.

**Bi hilabete pasatxo dira *Martutene* argitaratu zenuenetik. *Armiarma* atariko *Kritiken hemeroteke*-n hiru kritika baino ez dira ageri, baina hirurak oso aldekoak. Zer iritzi duzu eta nola sentiarazten zaitu liburua izaten ari den harrerak?**

Une honetan, ni pozik nago nobela bukatua dudalako eta, gainera, oso urtaro polita delako hau paseora ateratzeko. Liburuaren harrera dela eta, lasai nago, ez dudalako halako kritika ezkor bortizik espero. Poz handia eman didate Lander Garrok eta Mikel Hernandez Abaituak BERRIAN **Martutene**-ri buruz argitaratu dituzten artikuluek. Beren artean eztabaida gogorra izan dute, baina biak **Martutene**-ren inguruan bat eginda agertu dira, nahiz eta badakidan bietako inori ez zaiola erabat gustatu; biek, bakoitzak bere ikuspuntutik —ikuspegi horiek oso ezberdinak izan arren—, liburua onartu izanak poztu nau. Koldo Izagirrek ere, nahiz eta badakidan ez dagoela ados nobelako gauza askorekin —ezta hizkuntza aldetik egindako hautu batzuekin ere—, nobelaren osotasunaren parte handi batekin ados dago, eta nire lana errespetatzen du. Horretaz gainera, Iban Zalduek gonbidatuta, Gasteizko Irakurleen Klubera joan nintzen duela gutxi, eta harritu egin ninduen han 20tik gora lagun ikusteak, kultura maila oneko jendea, nire liburua irakurri eta atsegin izan dutenak. Benetan pozik nago liburua izaten ari den harrerarekin.

**Nolanahi ere, urte askotako isilaldiaren ondotik 800 orrialdeko nobela argitaratu eta gero, nahiz eta komentarioak aldekoak izan, ez al zaizu iruditu, Lander Garrok zioen bezala, liburuak merezi duen baino gutxiago hitz egin dela *Martutene*-z?**

Egia da liburua argitaratu aurretik eta aurkeztu zen egunean komentario mordo bat sortu zela han eta hemen, baina argitaratu eta gero liburuaren inguruko oihartzunak ez direla neurri berekoak izan. Baina ez diot hori kexa moduan. Ni oso pozik nago jasotakoarekin, eta ez dut gehiago nahi. Nire kalkuluak egin ditut: liburua irakurtzeko, Hasier Etxeberriak esan zuen bezala, 50 ordu inguru behar baldin badira, eta liburuak 100 irakurle izan baldin badiu —100 gutxienez izango dituela uste dut—, horrek esan nahi du 5.000 irakurketa ordu eskaini ditudala. Beraz, ia-ia nik idazten pasatu ditudan orduak amortizatu ditut. Hori pozik egoteko modukoa da. Ezin dugu eskatu jendeak autobusean goazenean ezagutu eta autografoa eskatzea. Uste dut euskal letretan estatus bat lortu dudala eta nahiko idazle transbersala naizela, pentsamolde guztietako jendea dagoela nire lana errespetatzen eta baloratzen dutenen artean, eta, harrokeriarik gabe, gero eta balio handiagoa ematen diot horri.

**Errua da gai nagusietako bat *Martutene*-n. «Bizitzaren aldeko aldarria» dela esan zuen, hala ere, Markos Zapiainek aurkezpenean.**

Erruaren kontua nobelaren parte batean ageri da batez ere, Iñaki Abaitua ginekologoaren partean. Esplorazio batean egin behar ez zuena egin zuen, eta hori zama handia bihurtu zaio. Bitxia da: irudipena dut jende askori ginekologoaren ez-egiteko hori ez zaiola oso larria iruditu. Beharbada nobelako bi emakumek ere —batez ere Lynnek— ez diotelako larritasun ikaragarriarik ikusten. Baina Abaituak beranduegi egiten du bere aitorenpena —erlijio katolikoak eskatzen zuena zamaz libratzeko—, eta gero ez da gai zama horretaz erabat libratu eta hegan egiteko. Alderdi horretatik, ezkorra ere izan daiteke.

**Nahiz eta gai nagusia ez izan nazionalismoa edo abertzaletasuna, «nazionalisten historiak» kontatzen jarraitzen duzu. Jon Juaristik esan zuen euskal idazleak hori egin behar duela, eta zu harekin ados zeunden.**

Bai. Hortik ere badago. Eta horretan ere agertzen da erruaren gaia, zenbait pertsonaiak hausnarketa bat egiten baitute egin dutenari edo egin ez dutenari buruz, indarkeriaren aurrean izan duten jarreraz, eta baita euskaldun eta abertzale izateak ekarri dien zamaz ere. Seguru nago beste leku batean jaiotako eta bizi izan banintz, arazo hau gabe, oso diferentea izango nintzela, eta zoriontsuagoa, seguru asko. Estrapolazio bera egiten dut diktadurarekin. Beharbada ahaztuegia dauka jende askok diktadura zer zen. Gezurra dirudi zein arin ahaztu dugun beldurra nagusi zen garai hura, lasai hitz egiterik ez zegoen garai hura, estatu polizial batean bizi ginen garai hura. Giro demokratiko batean bizi eta hazi izan bagina, gure eskubide kultural eta nazionalak errespetatzen direla sentituz, diferentea izango zen nire bizitza, eta baita nire literatura ere. **Martutene**-tik kezka horiek guztiak kendu, eta 800 orrialde izan beharrean 200 izango lituzke nobelak. Nahiz eta jakin horiek literaturari kalte egiten diotela, ni behartuta sentitzen naiz horiek idaztera. Izorra dadila literatura!

**Izango da kezka horien agerpenean aberastasun literarioa aurkituko duenik ere. Kezka horiek idazle hobe eta interesgarriagoa bihurtu zaituzte, irakurle askorentzat behintzat.**

Bai, hala da. Eta beharbada kezka horiek gabe idatzi ere ez nukeen egingo, idazten baldin badut, neurri handi batean, kultura gutxitu edo minorizatu batean borroka egin beharra egokitu zaidalako baita. Bestela, ez nukeen idatziko, seguru asko. Baina energia asko galdu dugu kontu horiekin, eta sufrimendu handia sortu da horien inguruan.

**Euskal literaturak hori guztia islatu duen eta islatuko beharko lukeen moduz asko hitz egin eta eztabaidatu da azkenaldian, *errelatoa* edo *errelatoak*, kontakizuna, kontakizunak edo dena delakoa osatu beharraz...**

Nik uste dut fikzioak errealitateak berak baino hobeto adieraz dezakeela egia, fede onez idazten denean behintzat. Ez dut asko irakurri horretaz, ez dut debatea jarraitu, baina uste dut eskatzen diguten errelato hori egin behar dela, eta gerraren errelatoa ere egin gabe dagoela. Pena ematen dit gazte jendeak, baita gazte jende abertzaleak ere, gerrari buruz zein gutxi dakien jabetzeak; gerrari buruz eta gerran izandako jokabideei buruz. Jose Antonio Agirre lehendakaria, adibidez, pertsonaia nobelesko ikaragarria da, pelikulak eta pelikulak egiteko aukera ematen duena, baina ia ezer ere ez da egin. Gure errelatoa ere egin egin behar da, eta iruditzen zait neurri handi batean fikzioak egingo duela, asko lagun dezakeela fikzioak horretan. Gerrako errelato kontsentsuatu bat eduki behar genuke honezkero, denentzat balioko lukeena, baina ez dago egiterik; ez, behintzat, Espainian. Hemen, nazionalismo galtzaile baina moralki garaileari esker, gehiago egin ahal izan da, baina Espainian inondik ere ez, eta bada ordua.

**«Fede ona» aipatu duzu, baina hori oso zaila da definitzen.**

Baina uste dut transmititu daitekeela, eta, harro jarrita, uste dut **Martutene**-n transmititzen dela. Ados ez daudenak ere, **Martutene**-n nahi ez luketena irakurtzen ez dutenak, jabetuko dira nik ez dudala hori idatzi inori min emateko. Uste dut Joxe Azurmendiren *gazte ero horiei* gauzak esaten zaizkiela min emateko moduan. Ni ez nago horren alde. Fernando Savaterren garai bateko adierazpenak, nahiz eta esaten zuenarekin ados egon, ez ziren egokiak. Bazegoen hori bera beste modu batean esaterik. Egia da ulertu beharrekoa dela hiru bizkartzainez inguratuta bizi behar zuenaren egoera ere, baina luma hartzen duenak jakin behar du baretzen eta zentzuz jokatzeko. Ez dakit zer irudituko zaien **Martutene** beste mutur batekoei, euskaraz irakurriko ez dutenei, nazionalista espainiarrei, gatazkaren ondorioz asko sufritu duten batzuei, baina uste dut **Martutene**-n fede on hori ikusi egiten dela. Egia da, hori ezin da ukatu, nik abertzaleon istorioak kontatzen ditudala; burgesak, bai, baina abertzaleak. Hori delako ezagutzen dudana ingurua eta giroa.

**Maitemina, desio sexuala, bikotearen elkarbizitza... Kontu horiek ere agertzen dira nobelan. Maitemina eta desio sexualak patetiko samar bihurtzen ditu ia beti**

## **pertsonaiak, ezinak azaleratzen dizkiete.**

Bai. Idiota ere bihurtzen da batzuetan gizon maitemindua, eta baita emakume maitemindua ere, kanpotik ikusita behintzat. Klabe eroso zait hori, gustuko dut pertsonaia maiteminduak patetismo horretan mugitzea. Max Frischi askotan galdetzen omen zion amak ea zergatik idazten zuen beti emakumeez, emakumeak ulertzeko gauza ez baldin bazen. Uste dut hori agertzen dela nire nobeletan, emakumeak ulertu ezina eta ulertu nahia. Beharbada gaurko gazteek gehiago hitz egingo dute beren arazo afektiboez. Guk, berriz, oso gutxi hitz egin dugu horretaz, eta ezjakin hutsak izan gara. Ezjakintasunak, ziurtasun faltak eta frakasatzeko beldurrak ez dute laguntzen inteligente izaten edo modu inteligentean eragiten. Niri atsegina egiten zait maldertasun hori deskribatzea. Zergatik egiten zaidan erakargarria? Ez dakit. Beñat Sarasolak txiste bat egin zuen horretaz bere poema batean. Beharbada oso nire garaiko kontua izango da, eta batzuetan pentsatzen dut laster gazteek ez dutela ulertuko, zorionez. Baina beste batzuetan kontu hauek eternoak direla pentsatzen dut, eta gure belaunaldian dagoeneko gaizki ikusiak zeuden rol batzuk, zaharkituztat eta gaindituztat jotzen genituenak, orain bueltan datozela, zoritxarrez.

## **Liburu batzuek garrantzi handia dute *Martutene*-n, bereziki Max Frisch-en *Montauk* nobelak. *Montauk* «pertsonaia mailara»igo duzula idatzi du Jon Kortazarrek. Zer du *Montauk*-ek?**

Kritikari batzuentzat Frischen nobelarik onena da, baina beste batzuek ez diote inongo garrantzirik ematen. Nik oso gustukoa dut egiatia delako, inteligentea delako, ondradua delako... *Montauk*-en hasieran dagoen Michel de Montaigneren aipuak dioen bezala, fede onez idatzitako liburua da. Sinistu behar zaio Montaigneri, eta baita Frischi ere. Bere buruaren disezio hotz eta gupidagabea egiten du, hain era errazean, hain modu xumean, hain fin eta hain dotore... Gizonen eta emakumeen arteko harremanez mintzo da. Aitortu nahi ala ez, gizonak egiten dituen gauzen erdiak emakumearengatik egiten ditu, eta Frischek ez du hori ezkututzen. Gerra ere aipatzen du, eta dirua, eta adiskidetasuna... dena oso ikuspuntu interesgarri batekin, aurrerakoia eta zentzuduna. Eta estilo bat du. Estilo labur eta ebaki hori... Sentitu nuen era horretan zerbait esateko gogoia, estiloaren apropiazio bat egitekoa, eta iruditu zitzaidan hori oso ondo etorriko zitzaidala adierazteko Iñaki Abaitua ginekologoaren eta haren emaztearen arteko harremana, non erruaren arazoa den zentrala. Hor behar nuen kanpotik norbait etortzea, ur horiek astintzera, eta orduan esan nuen neure artean: Lynn! Idazterakoan, *Montauk*-eko estiloa traizionatu egin dut neurri batean, baina Frischek beste liburu batzuetan darabilena hartu dut *Martutene*-ko digresioetarako, Frischek egunkarietan darabilen hausnarketa estiloa.

## **Zer harreman du, zeure ikuspuntutik begiratuta, *Martutene*-k zure gainerako nobelekin?**

*Hamaika pauso*-rekin lotu dute batez ere orain arteko irakurleek, baina nik uste dut gainerakoekin ere baduela harremanik. Beti nobela bera egingo dudala iruditzen zait. Baina uste dut *Martutene*-ren ondoren libreago sentituko naizela, eta aurrerantzean ez dudala ja sentituko nobela baten bitartez gurean arakatzen jarraitzeko beharrik. Nahiko nuke, gainera, hau mugarri bat izatea, baita ere, gizarteak gainditu egingo duelako kontu hori, hau da, hitzarmen bat etorriko dela gure historiaren inguruan, bakeak egingo ditugula geure historiarekin eta gutxiago hitz egin dugula horretaz. Nahiko nuke *Martutene*-k denboran bat egitea une horrekin, eta, hain zuzen ere, ETak jarduera armatua uztearekin bat egin du. Baliteke azkenean betiko gaiei bueltaka jarraitzea aurrerantzean ere, baina ea egia den orain benetan libreagoa naizela beste gai batzuei buruz hitz egiteko. Jada mania bihurtua zaidanez, idazten jarraituko dudala uste baitut

## Kritikak esandakoak - La crítica ha dicho

“...Hainbeste ere ez nuke esango, nobelan egon baitaude luzesten diren pasarte asko eta asko. Irakurleak narratzaileari akuilua bizkarrean sartuko lioke gustura zenbait zatitan, jakin nahi baitu nora doazen pertsonaien ibilerak, baina, ai adixkidia, narratzailearen hariak gobernatzan dituen Saizarbitoriak agintzen du bere eleberrian eta, jakina, irakurlearentzat bezainbat, berarentzat idatzi du, kontatzearen menturaren aitortzarekin argi utzi bezala. Finean, nobela terapeutiko bat ere bai baita berak egin duena: teraupetikoa zahartzearekin, terapeutikoa gaixotasunarekin, teraupetikoa heriotzarekin eta teraupetikoa bizitzari zentzua eman beharrarekin. Gutxienez.”

H. Etxeberria / Zuzen Albistaria 2012-04-14

“**Martutene**, baina, gizartea ere bada. Ramon Saizarbitoriaren ikuspegi soziologikoaren eta politikoaren adierazpena. Martutene auzoa Donostiako historiaren laburpena izan bada, nobelan gure historiaren laburpena emango zaigu: oroipenaren nobela bada, Gerra Zibila aipatzen delako, eta horrekin batera, gerra ondoren gertaturikoa Martinen eta Pilarren familien artean; gure garaia aipatzen delako, eta ETAk egin duen eta utzi duen historiaz eta eraginez ezer ezkutatu gabe —eta ezkaturik gabe— hitz egiten duelako. Gure azken historiari buruzko begirada aberatsa eskaini duelako esan dezake Ramon Saizarbitoriak **Martutene** gure gizartearen metafora bat dela.”

Jon Kortazar / El Correo, 2012-04-28

## Erabilitako iturriak - Fuentes utilizadas

Wikipedia

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Ramon\\_Saizarbitoria](http://eu.wikipedia.org/wiki/Ramon_Saizarbitoria)

Erein

<http://www.erein.com/libro/martutene>

Literaturaren zubitegia

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=132>

Berria

[http://paperekoa.berria.info/plaza/2012-07-10/028/001/Ramon\\_Saizarbitoria\\_.htm](http://paperekoa.berria.info/plaza/2012-07-10/028/001/Ramon_Saizarbitoria_.htm)

Zuzen

<http://zuzen.com/2012/04/14/saizarbitoriaren-martutene-eleberriaz/>

Kritiken armiarma

<http://kritikak.armiarma.com/?p=5462>